FREMAP
Mutua Colaboradora con la Seguridad Social nº 61

GARRAIO GASTUEN KONPENTSAZIOAREN ESKAERA

(Gizarte Segurantzako Estatu Idazkaritzaren apirilaren 16ko TIN/971/2009 Agindua eta 2009ko urriaren 21eko Ebazpena)

1. PRESTAZIOAREN ESKATZAILE ONURADUNAREN DATU PERTSONALAK

IFZ/AIZ/PASAPORTEA:_____ Afiliazio-zk.: _____

Sexua: ☐ Gizona ☐ Emakumea Izen-abizenak: _____

Jaiotze-data: _____ Emaila: _____

Telefono mugikorra: _____

Ohiko helbidea: _____

Herrialdea: _____ Probintzia: _____ Herria: _____

Udalerria: _____ Posta-kodea: _____

Bide mota: _____ Bidea: _____ Bide-zk.: _____

Bis: Bai ☐ Ez ☐ Blokea: _____ Eskailera: _____ Pisua: _____ Atea: _____

ONURADUNAREN ALDEKO ESKAERA EGITEN DUEN PERTSONAREN DATUAK, ZEINAK HONELA JARDUTEN BAITU:

◯ Legezko ordezkaria ◯ Kuradorea edo defendatzaile judiziala ◯ Egitatezko zaintzailea

NAN / AIZ: _____ Izen-abizenak: _____

Posta elektronikoa: _____ Telefonoa: _____

Herrialdea: _____ Probintzia: _____ Herria: _____

Udalerria: _____ Posta-kodea: _____

Bide mota: _____ Bidea: _____ Bide-zk.: _____

Bis: Bai ☐ Ez ☐ Blokea: _____ Eskailera: _____ Pisua: _____ Atea: _____

FREMAP
Mutua Colaboradora con la Seguridad Social nº 61

2. EGINDAKO JOAN-ETORRIAK

Joan-etorri mota*	Garraiobidea*	Data (Noiztik)	Data (Noiz arte)	Bidaia kopurua	Irteera lekua	Helmuga lekua	Zenbatekoa
							Zenbatekoa, guztira:

Joan-etorri mota*: Adierazi joan-etorria toki berean egiten den ala hainbat tokiren artean den.
Garraio-bidea*: Adierazi erabilitako garraio-bidea (autobusa, metroa, trena, taxi-a, hegazkina, ontzia edo ibilgailu pribatua).
Ibilgailu pribatuan egindako joan-etorria soilik ordainduko da toki desberdinen artekoa denean.*
Ibilgailu pribatuko joan-etorrietan, ez bete zenbatekoaren eremua FREMAPek kalkulatuko du kilometrajean oinarrituta (0,19 /km – Gizarte Segurantzako Estatu Idazkaritzaren 2009/10/21eko Ebazpena).*

FREMAP
Mutua Colaboradora con la Seguridad Social nº 61

3. KONPENTSAZIOA ORDAINTZEKO ESKATZEN DEN BANKU-KONTUAREN KODEA

IBAN: _____ _____ _____ ___ _____

AITORTZEN DUT, nire erantzukizunpean, eskabide honetan eman ditudan datuak egiazkoak direla, eta badakidala FREMAPi honen bidez emandako datuen aldaketa oro jakinarazi behar diodala, aurrerantzean halakorik egonez gero. Eta inprimaki honetan jarritako sinadura bidez, **ESKATZEN DUT** onartu dadila garraio-gastuen konpentsaziorako nire eskaera, hoberen konpontzeko beharrezkoak diren neurri guztiak hartuz horretarako.

Data eta sinadura:

Harremanetarako eman dituzun datuak zuzenak direla eta eguneratuak daudela egiaztatu ezazu. Zure prestazioaren kudeaketa eta jarraipena egiteko beharrezkoak diren jakinarazpenak bitarteko elektroniko edo postalen bidez bideratzeko, FREMAPek datu horiek erabili ahal izango ditu.

Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamendu Orokorrean ezarritakoari jarraikiz, jakinarazten dizugu emandako datu pertsonalak FREMAPek, GIZARTE SEGURANTZAREN 61 ZK.DUN MUTUA KOLABORATZAILEAK (egoitza soziala: Pozueloko errepidea 61, 28.222 Majadahonda – MADRIL) tratatuko dituela, tratamenduaren arduradun den aldetik. Zure datuak jasotzearen eta horien tratamenduaren helburua da kudeatu ahal izatea Mutuak aginduta dituen prestazioak eta indarrean dagoen araudiaren arabera izan ditzakeenak, tratamendua beharrezkoa izanik legezko betebeharra betetze aldera. (aipatu Erregelamenduaren 6.1 c) artikulua eta, behar denean, 9.2 b) artikulua). Era berean, jakinarazten dizugu datuak ez dizkiegula hirugarrenei utziko edo transferituko. Salbuespena izango dira legez derrigortuta gauden kasuak. Datuak beharrezko denboran zehar gordeko dira jaso ziren helbururako. Horrez gain, etorkizunean agertu daitezkeen ardurak zehazteko eta erreklamazio prozesuei erantzuteko ere gordeko dira. Datuetara sartzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko, tratamenduaren aurka egiteko, eramangarritasunerako, tratamendua mugatzeko eta automatizatutako banakako erabakien objektu ez izateko eskubideak erabil daitezke, idazki bide jakinaraziz arestian aipatutako helbidera edo honako posta elektroniko honetara: derechos_arco@fremap.es. Zure datuen tratamenduari buruzko informazio gehigarria eskura duzu hemen: www.fremap.es. www.aepd.es).

AENOR AENOR AENOR

FREMAP

Gizarte Segurantzaren 61 zk.dun
Mutua Kolaboratzailea

ESKAERA BETETZEKO ARGIBIDEAK

•Idatzi ahalik eta argien eta letra larriak erabilita.

•Edozein zalantza izanez gero, eskatu aholkularitza eta laguntza FREMAPeko langileei.

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1. Eskaera hau ziurtagiri digitalaren bidez sinatu beharko da, edo jatorrizko sinadurarekin edo aurrez aurre FREMAPen instalazioetan. Sinadura ez bada ziurtagiri digitalaren bidez egiten, eskatzailearen nortasuna egiaztatu beharko da, eta, horretarako, jatorrizko NANa edo haren ordezko agiri ofiziala aurkeztu beharko da, FREMAPek erkatuko duena, eta itzuli egingo zaio gero (mesedez, NANaren fotokopia ez da gainerako dokumentazioarekin batera aurkeztu behar). Eskaera jatorrizko sinadurarekin bidaltzen bada, FREMAPen bulegoetara fisikoki agertzea saihestu ahal izango da eskatzailearen nortasuna egiaztatzeko, prestazioa ordaintzeko kontsignatu duen kontu korrontearen ziurtagiri eguneratu bat aurkeztuz. Ziurtagiri horretan titular gisa agertu beharko da, edo, bestela, karguren bat duen banku-ordainagiri bat, prestazioa eskatu aurreko hilabetea baino lehenagokoa dena, eta IBANa eta karguko kontu-korrontearen titulartasuna osorik jasoko ditu.

2. Eskaera langile onuraduna ez den beste pertsona batek egiten badu, legezko ordezkaritza, kuradoretza, defentsa judiziala edo egitatezko zaintza egiaztatzeko dokumentazioa (azken kasu horretan, egitezko zaintzailearen egoera egiazta daiteke familia-liburuaren –zeinak justifikatuko duen, kasu bakoitzean, zaintzailearen eta onuradunaren arteko ahaidetasuna–, erroldatze-ziurtagiriaren edo bizikidetza egiaztatzen duen dokumentazioaren bidez, eta baita egoera hori argi eta garbi ondorioztatzen duten dokumentuen bidez ere).

3. Eskaera egitezko zaintzaileak eginez gero, prestazioa sartuko den kontu korrontearen titularra langile onuraduna dela egiaztatzen duen bankuko dokumentuaren fotokopia.

4. Dokumentazio gehigarria:

•Garraio publikoan egindako joan-etorrien gastuak ordaintzeko eskatuz gero, egindako garraioaren egiaztagiria aurkeztu beharko da (garraio- edo bidaia-titulua eta, hala badagokio, faktura).

•Hala badagokio, EVISS ziurtagiria, laguntzaile-beharra justifikatuz.

• Hala badagokio, Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren ziurtagiria, bertaratzea egiaztatzen duena.

DOKUMENTAZIOA BIDE DIGITALETIK BIDALTZEA: Eskaera hau ziurtagiri digitalaren bidez sinatu eta posta elektronikoz bidali ahal izango da; bestela, eskatzaileak sinatutako originala aurkeztu behar da. Dokumentazio osagarria ere posta elektronikoz bidal daiteke eta pdf formatuan egon beharko du; izan ere, beste edozein formatutan (TIFF, adibidez) jasotzen diren dokumentuak baztertu egingo dira, biltegiratze-tamainagatik.